

murarte

CULTURA OCIO COMUNICACIÓN



La programación de ayer terminó con la performance 'El crimen a escena: Destripando a Jack', de la mano de Juan Mari Barasorda, Martín Olmos y el grupo de teatro de la UPNA.

La 7ª edición de Pamplona Negra, que ha tenido que cambiar de fecha por la covid, arrancó ayer bajo el lema 'God save the Noir' y se prolongará hasta el 29 de mayo.

↳ Un reportaje de Joana Lizarraga 📷 Fotografía Oskar Montero

El crimen salpica a Pamplona



Antonio Lozano, Graziella Moreno, Manu Marlasca y Fernando Hernández.

La versión más *noir* de la literatura llegó ayer de la mano de la séptima edición de Pamplona Negra que, de manera extraordinaria por la complejidad de la situación sanitaria, tuvo que trasladar su fecha de celebración al mes de mayo mientras en el resto de ediciones la oscuridad de este género inundaba la

capital navarra en enero. Bajo el lema *God save the Noir*, haciendo un claro guiño al país invitado de esta edición, Gran Bretaña, Jack el Destripador, Sherlock Holmes o James Bond serán algunos de los protagonistas en un festival que llega con el reto de "agradar más que nunca y de adentrarse en el lado *noir* de la ficción literaria y

cinematográfica".

Haciendo suyo el eslogan *Cultura segura*, la directora del festival, Susana Rodríguez Lezaun, aseguró ayer en la inauguración de esta séptima edición que siempre le hace "muy feliz" atravesar el escenario para dar la bienvenida a todos los asistentes —que esta vez se han dividido entre el

público presencial y virtual, ya que la programación puede seguirse vía *online*—, algo que este año ha adoptado un significado más especial si cabe ya "ha sido más difícil que nunca sacar adelante el festival, pero tampoco nunca había sido tan ilusionante por la trascendencia que tiene estar aquí: la literatura ha demostrado su enorme

valor terapéutico, los libros han sido la ventana que nos han mantenido cuerdos cuando las puertas estaban cerradas y las historias de ficción nos han permitido olvidar la realidad por un rato", dijo Rodríguez haciendo referencia a los meses de confinamiento.

En este sentido, se refirió a la universalidad de la cultura que, en un

HOY, MARTES 25 DE MAYO

- **16.00 horas Taller de novela negra y criminología.** Manu Marlasca. *Engañar desde la verdad. Cómo se escribe un true crimen*, en la Sala Gola. Inscripción previa (20 euros) en pamplonanegra.com. También se ofrece un bono de tres sesiones 50 euros.
- **18.15 horas. Mesa redonda.** *Detectives bajo la lupa.* Félix J. Palma, José Luis Ibáñez, Noelia Lorenzo Pino. Modera: Marisa Lacabe.
- **19:05 El crimen a escena.** *La firma del asesino. La importancia de la grafología.* Inspector Montenegro e inspector Sanvicente (Policía Nacional).
- **20.00 horas. Cine Negro.** *Verde es el peligro.* Sidney Gilliat, 1946. Se requiere entrada (3 euros).
- **Espacio de firmas.** Tendrá lugar en el *hall* de Baluarte.

momento donde la distancia es el mayor handicap, la narrativa "no entiende de fronteras y es el acogedor hogar de gente muy diversa". De hecho, la Sala de Cámara se convirtió ayer en un lugar donde se hizo tangible la fina línea que separa la ficción de la realidad que, con el *true crime*, a veces se diluye tanto que llega a desaparecer. Desde que Truman Capote escribiera *A sangre fría* han sido muchos los escritores, periodistas en su mayoría, los que se han sentido fascinados por los crímenes reales y han decidido escribir el relato veraz de lo ocurrido, del crimen, la investigación, los testimonios y los juicios, todo ello con calidad literaria.

Para analizar los casos reales, el *true crime* fue el eje principal de ayer en Pamplona Negra en una mesa redonda en la que participaron el periodista Manu Marlasca, la jueza Graziella Moreno y el editor Antonio Lozano, los tres expertos en el género de la novela negra. Además, el autor inglés Graeme Macrae Burnet, conocido, entre otros títulos, por su novela *Un plan sangriento*, también hizo una aparición en forma de vídeo ya que, que, debido a la pandemia, no pudo acudir ayer a Baluarte.

Durante la mesa redonda, Lozano explicó que la aproximación con la que se lee una novela dependiendo de si es ficción o no es "muy diferente. Leemos con cierto distanciamiento porque, aunque sepamos que estos crímenes pueden ocurrir y que existen verdaderos monstruos, son algo lejano y no nos llega a afectar". En este sentido, Marlasca aseguró que los asesinos "son en un 99% como el resto de nosotros, 'de andar por casa', solo con la diferencia de que se atreven a dar el paso de matar, la gran mayoría de veces sin ser algo premeditado. Algo que nos recuerda lo vulnerables que podemos llegar a ser". Por su parte, Moreno apuntó que idealizamos a estos psicópatas de la ficción como personas inteligentes y meticulosas, en definitiva, atractivas. Sin embargo la realidad dista mucho de esta idea porque "cuando ves uno asesinado de verdad no tiene ningún atractivo, es espantoso". Menos mal que siempre quedará la literatura *noir*. ●



Kerman Arzalluz idazle donostiarra, atzo, Baluartean.

Kerman Arzalluz

IDAZLEA

“Hitzekin eta esanahiekin jolasteko generoa da mikrofikzioarena”

Laburrak izanagatik ere esanahi sakonak azaleratzen dituzten mikrotestuen generoa aztertu zuen atzo idazle donostiarrak Iruñean.

↳ **Miren Mindegia**
 📍 **Unai Beroiz**

IRUÑEA – Mikrofikzioa mugarik gabeko generoa da. Izan dezake poesiatik, ideiekin eta hitzekin jolasteko moduan; baita narratibatik ere, kontakizun bat islatzen duen heinean. Mugarik ezean, alta, baditu berezko barne arauak eta baliabideak ere, baina arau bat beste guztien gainetik nagusitzen bada, hori soiltasuna da: hitz bat ere ez dago soberan. Kerman Arzalluz (Donostia, 1972) idazleak mikrofikzioa eta umore beltzaren inguruko tailerra eskaini zuen atzo Pamplona Negra jaialdiaren baitan. Max Auben *Crimenes ejemplares* eta 2019an argitaratu

zuen *Crimenes ideales* lanetatik abiatuta, motzetik abiatuta handia den genero honen berezitasunak aztertu eta bertatik ikasteko parada eskaini zuen Arzalluzek. Zertan oinarritu da eskaini duzun tailerra, zehazki?
 –Oso zehatza naiz eta gustatzen zait edukia ere halakoa izatea, iragarritakoa eta jasotzen duzuna berdina izatea. Mikrofikzioaren ezaugarriak aztertu ditugu, baita nola uztartzen den umore beltza genero honen baitan. Oinarritzat, bi liburu hartu ditut: alde batetik, Max Aub idazlearen *Crimenes ejemplares* liburua eta, bestetik, nik idatzitako *Crimenes ideales*. Mikrofikzioaz ari garenean, zertaz ari gara?

–Nahiko genero berria da. Testu laburrak edo hiper laburrak betidanik existitu izan dira, hori bai. Ahozko tradizioan betidanik egon da, aitzinatik dator. Baina genero gisa, joan den mendeko 60ko hamarkadan, batez ere Ipar Ameriketean ematen da, egile batzuk

konturatzen direnean zeezer diferentea egiten ari direla. Egiten ari diren testu ariketa horien corpus bat eraikitzen dute, eta orduan sortzen da generoa. Mikrofikzioa eta mikro-errelatoa bereizi behar direla uste dut: mikro-errelato guztiak mikrofikzioa dira, azken hau orokorragoa da. Bertan, mota askotako testu hiper-laburrak sartu daitezke: prosa poetikoa, aforismoak, mikro-errelatoak...

Oso ongi egokitzen da generoa egun bizi gaituen garaioetara, ezta?

–Oso genero aproposa da gure garai honen abiadurarako, bai. Adituek esaten dutenez, sare sozialen hasmentan asko argitaratu zen zentzu horretan, eta uste dut pixka bat jaitsi egin dela. Hala ere, generoak oso garai indartsua izan zuen sare sozialetan, Twitterren batez ere. Denbora falta ere bada da arrakasta horren arrazoietako bat. **Umore beltza izan da tailerren gai nagusietako bat, halaber. Baina genero beltzean umorea ez da maiz landu, ezta?**

–Alde batetik, Pamplona Negra oso jaialdi transbertsala da eta hor izan dugu gai hau proposatzeko aukera ere. Gastronomía beltza, eleberri beltza, umore beltza... Diziplina asko hartu dira kontutan jaialdia antolatzerakoan. Beste motatako genero bat aurkeztu

“Mikrofikzioa betidanik existitu da, baina genero bezala 1960ko hamarkadan sortu zen, Ipar Ameriketako egile batzuek eskutik”

“Gero eta testu motzagoa idatzi, orduan eta baliabide gehiago behar dituzu, oso zorrotza izan beharra zara alde horretatik”

nahi genuen guk, mikrofikzioarena, eta bi liburu horietan oinarrituta, umore beltzaren tratamendua ere. Genero beltzean ere, trama zabaldu egin da azkeneko urteetan, eta bestelako gaiak lantzen dira.

Zer nolako umorea da genero beltzaren baitan agertzen zaiguna?

–Umore beltzak umorearen ezaugarri guztiak dauzka, baina bereziki krudeltasuna da desberdin egiten duena. Umore beltza, irribarrea sortzen duena da, barregarriak ez diren egoeretatik abiatuta, izan egoera beldurgarriak edo ilunak. Beste sentimendu batzuetatik abiatzen da. Oso berezia da eta irakurketa desberdinak eragiten ditu: batzuei grazia eragiten diena, beste ez. Deserosoa ere izan daiteke. Aldi berean, betidanik existitzen den umorea da, absurdoarekin ere zerikusia duena: platano-azalaren istripuaren umorea da. Baina argi dago umore beltzak harreman zuzena duela irakurlearen mundu ideologikoarekin, hor kokatzen direlako mugak ere.

Badauka alde kritiko bat, ere?

–Bai, dudarik gabe. Eta onuragarria da hori. Mexikon, adibidez, heriotzaren kulturarekin egiten duten efektu berdina da. Heriotzaz umore kutsu horrekin hitz egiten baduzu, horreke ere nolabait banalizatzeko balio dezake.

Mikrofikzioan, genero beltzean bezala, faltatu ezin diren elementuak identifikatu daitezke?

–Mikrofikzioan, hasteko, inportantea baliabideen ekonomiak hedatuzko alderantzizko proportzioa daukala da. Gero eta testu motzagoa, gero eta zehatzasun handiagoa behar duzu. Ezin da hitz bat soberan egon. Oso zorrotza izan behar zara alde horretatik. Gero, genero jostagarria ere bada. Malabarismoak egiteko, hitzekin eta esanahiekin jolasteko genero bat da. Hizkuntzari buelta eman eta zukua ateratzeko. Kasu honean, umorea ere ezin da faltatu.

Balora sozialek ere pisu nabarmena daukate tailerren landu dituzten liburuetan, ezta?

–Bai, hala da. Funtsezko ezaugarri bat da, gainera. Bat irakurrikiko dizut, edertasunaren kanona eta presio soziala salatzen duena, *De quita y pon* izenekoa: "Esa negativa suya a quitarse la papada, las bolsas de los ojos y las patas de gallo me dio coraje. Y tampoco quería ponerse tetas ni morros. Me la quité de en medio con un empujón. Con la tripita". Hor ikusten da aipatzen dudana. Testu hauek ondo pasatzeko dira, entretenimendu gisa, baina atzetik badaukate balio soziologikoa ere. Uste dut hori dela funtsezkoena liburu hauetan. Kasu honetan, emakumeek gizartearen ederrak bezala onartuak izateko jasan behar izaten duten presioa da mintzagai. Max Auben liburuan, adibidez, bere gizartearen deskribapen bat egiten du, eta orduko gizakiaren alderdi txarrak salatzen ditu. Alderdi kritiko nabarmena dauka. ●